

20

22



Jaialdia
POLTSIKO ANTZERKIA



2022
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO
DE BOLSILLO



Norta, La Reina del Arga © Iñaki Rubio

Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren** 31. edizioaren oso balantze ona egin zuten antolakuntzari eta herritarren erantzunari zegokienez. Covid-19aren erasana txikiagoa izan zenez, 2.300 ikus-entzule etorri ziren antzerkiak, umoreaz, magiaz, musikaz eta kabaretaz goatzera maiatzaren 6tik 22ra bitarte.



Nerea Arriola, Carmenen zai, Aitona Amonen etxea
© Iñaki Rubio



Y tan panchas, Altzerri © Iñaki Rubio

3

Jaialdia normaltasunera itzultzeko moduan antolatu zen. 2021eko hitzordua udazkenara atzeratu zen, eta aire zabalean ipinitako karpetan egin zen, unean uneko segurtasun- eta osasun-arauak betetzen zirela bermatzeko. 2022an, berriz, osasun-egoera hobeturik, Donostia Kulturak auzoetako ostatuei lagundu nahi izan zien, ikuskizunak programatuz eta jarduera normalizatzen lagunduz.



Xentimorik gabe, Gu primer © Iñaki Rubio



Andoni Mutiloa, Sex Sua © Iñaki Rubio

4 Programazioari dagokionez, berriz ere bi hizkuntza ofizialen presentzia eta emakumeen parte hartzea parekatzen saiatu ginen. Guztira, **14 konpainia** izan ziren, **16 ikuskizun** eta **34 emanaldi**, zeinetarik 17 euskaraz izan baitziren, eta beste 17 gaztelaniaz. Ikuskizunak Donostiako 24 gunetan banatu ziren.

Konpainiek esker ona adierazi zieten Donostia Kulturari eta ikus-entzuleei. Erakundeari, halako egoeran sektorearen eta jaialdiaren aldeko apustua egiten jarraitu zuelako, eta ikus-entzuleei, berriz ere ilusioz etortzeagatik ikuskizunetara. **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia**k beti izan du multzo leial bat ikus-entzuleen artean, hutsik egiten ez duena, eta haietako asko elkartu ziren berriro Donostiako kultur programazioan klasiko bihurtua den gertaera honetan.



Virginia Imaz-Sex o no sex, Botanika © Iñaki Rubio



Luze edo motz, Haritza © Iñaki Rubio